

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Marcelina Lecea Iparragirre

*Berastegi,
Gipuzkoa
(1940)*

Aurkibidea



Biografia



Izotzalde auzoko Intza baserrian jaio zen 1940an. Baserritik bizi ziren eta Marcelinari sarri suertatu zitzaion artzaintza lanetan aritu beharra. Arrautzak eta babarrunak saltzen zituzten eta bezeroak etxera joaten zitzaizkien erostera. Eskolan Berastegin ibili zen. Umetatik izan zuen pilotarako zaletasuna eta baita jokalaria ona izan ere. Ezagun batek bere eskuz jokatzeko moduari erreparatu eta Madrilera pilotan jokatzera joateko aukera eskaini zion, eta baita joan ere. Baina oso une gogorrak igaro zituen etxetik kanpo eta atzera etxera bueltatu zen. Berrobiko paper lantegi batean aritu zen lanean eta ondoren Beasaina ezkondu zen.

Zintak

BRS-035

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2009-07-17
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Elxpuru, Juan Martin

BRS-036

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2009-07-17
- **Iraupena:** 18 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Baserritik bizitzen: abereak, soroa eta feriak

- **Erref:** BRS-035/002
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:01:13. **Bukatu:** 00:04:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Baserrian ardiak eta behiak zeuzkaten. Soroko lanak ere egiten zituzten beren lurretan. Gutxitan jaisten ziren feriara baserriko jeneroa saltzera. Ferian zer saltzen zuten azaltzen du. Uzta oso ona zenean, etxera ere etortzen ziren erostera.

2. Etxeko ardiak zaintzen ibilitakoa

- **Erref:** BRS-035/003
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:04:03. **Bukatu:** 00:07:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Umea zela, ardiak eta behiak zaintzen ibiltzen zen eskolara joan beharrean. Abereak non edukitzen zituzten azaltzen du. 500 arditik gora zituzten.</p>

3. Anai-arreben arteko lan-banaketa

- **Erref:** BRS-035/004
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:07:09. **Bukatu:** 00:08:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldunak diasporan
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Tolosaldeko lantegiak

Laburpena:

<p>Ardiak eskuz jezten zituzten anai-arrebek. Senide bakoitzak zer bizimodu hartu zuen kontatzen du.</p>

4. Artzainaren bizimodu gogorra

- **Erref:** BRS-035/005
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:08:50. **Bukatu:** 00:09:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Artzainaren bizimodua gogorra zen. Udaberrian, arkumeak jaiotzen zirenean, oso eguraldi txarrak egiten zituen; baina, hala ere, ardiak zaintzera joan behar izaten zuten.</p>

5. Artilearekin ateratako etekina

- **Erref:** BRS-035/006
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:09:45. **Bukatu:** 00:11:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Artilea saldu egiten zuten, eta nola saltzen zuten azaltzen du. Handik lortutako diruak ez zuen konpentsatzen egindako lana.

6. Ardien esnearekin gazta egiten

- **Erref:** BRS-035/007
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:11:49. **Bukatu:** 00:13:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Gazta ere egiten zuten ardien esnearekin. Ardiak jezten zituztenean mendira eramaten zituzten. Ardi bakoitzak zintzarri bat eramaten zuen zintzilik, eta hots horren bidez urrutitik ezagutzen zuten zein ardi zen.

7. Gazta egiteko prozesua eta lekua

- **Erref:** BRS-035/008
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:13:24. **Bukatu:** 00:15:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ardien esnearekin gazta egiteko leku berezi bat zuten etxean. Gazta egiteko prozesua nola izaten zen azaltzen du. Gaztak normalean ez zituzten kalera saltzen: etxerako edo lagunen bati oparitzeko erabiltzen zituzten.

8. Eskolatik piper egiten umetatik

- **Erref:** BRS-035/011
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:20:47. **Bukatu:** 00:23:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eskolara gutxi joan zen, pilotan jolasten gelditzen baitzen. Maistra erdalduna izan zuten, eta debekatu egiten zien euskaraz egitea.

9. Umetan jolasean, etxean lanik egin behar ez zenean

- **Erref:** BRS-035/012
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:23:05. **Bukatu:** 00:24:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Jolasteko denbora gutxi izan zuen berak umetan, etxean lan egin behar baitzuen. Gerora, denbora gehiago zuenean, zer jolasetan ibiltzen zen azaltzen du.

10. Mariaren kongregazioan egiten zutena

- **Erref:** BRS-035/013
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:24:18. **Bukatu:** 00:26:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

<p>Mariaren kongregazioan egon zen gaztetan. Igandero elizara joan behar izaten zuten, bestela pulpitutik kontuak eskatzen baitzizkieten. Kongregazioan zer egiten zuten aipatzen du.</p>

11. Baserritik elizarako bidea

- **Erref:** BRS-035/014
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:26:27. **Bukatu:** 00:28:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Beren baserritik elizara 2 km baino gehiagoko bidea zegoen. Bide hura nolakoa zen eta iluntzean nola ibiltzen ziren azaltzen du.

12. Pilotari trebea izandakoa

- **Erref:** BRS-035/015
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:28:08. **Bukatu:** 00:29:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Umetatik pilotan jokatzen zuen, eta mutilen aurka jokatzen zuen, neskari ez baitzegoen jende aurrean mutilen aurka jokatzen ausartzen zenik.

Transkripzioa

-Esan dezu eskola zortzikin utzi zendula.
-Bai, hortxe, zortzi ingurun.
-Eta gero baserrin aritu zinen lanean?
-Baserrin.
-Eta sekula kanpora atera ziñen lanera?
-Bai.
-Neskame edo?
-Ez.
-Neskame ez. Aurreneko, aurreneko ateera nik Madridea hamazazpi urte neuzkela, pelotan ittea.
-Zu pelotan ibiltzen ziñen ordun?
-Bai.
-Eskolan bakarrik ez, eskolatik kanpora ere bai.
-Ba..., nik pelotan jokatzen nun. Esto, hemen herri txiki guzitan gaztea nitzela.
-Maixun bat bazenun?
-Ez. Ni nere kaxa. Baakizu, herritan beti pelotan ibiltzen da, mutille ta eso. Nik'e hori izandu det, pelotako gauze, eta pelotan ibiltzen nitzen herriz herri, hemen askotan; Villafrankan eta Santiagotan eta.
-Deitu egiten zizuten?
-Deittu eitten ziarean hola aiuntamentutiken, dena korrittuta zeoan neska bat zeoala bastante ona jokatzen zuna eta tal y cual. Jartzen ziarean mutil bat eta, bueno, partido bat exhibizioa itteko partido bat eta. Hola.
-Mutillen kontra. Neskaik ez zegoan. Nik esaten dizutena, lagun hoi, bai jokatzen zun ni bezelaxe edo hobego, baiño ez zun baloreiken izaten publikora ateatzeko. Bueno, ni pelotara.

13. Madrilera pilotan jokatzer (I): nola lortu zuen kontratua

- **Erref:** BRS-035/016
- **Iraupena:** 0:04:54. **Hasi:** 00:29:59. **Bukatu:** 00:34:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

17 urte zituela, Madrilera joan zen pilotan jokatzer, eta nola lortu zuen hara joatea azaltzen du.

14. Madrilera pilotan jokatzer (II): hara joan zen eguna

- **Erref:** BRS-035/017
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:34:53. **Bukatu:** 00:37:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

3 urteko kontratua egin zioten pilotan jokatzeko, eta Madrilera joan zen. Han zer nondik norako bizi zituen kontatzen du. Etxean ez zuten ondo hartu Madrilera joan zenean.

15. Madrilera pilotan jokatzera (III): gaztelania ulertu ezinik galduta

- **Erref:** BRS-035/018
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:37:12. **Bukatu:** 00:38:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Madrilen oso gaizki pasa zuen, gaztelania ez zekienez galduta sentitzen zen eta.

16. Madrilera pilotan jokatzera (IV): eguneroko bizimodua

- **Erref:** BRS-035/019
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:38:21. **Bukatu:** 00:41:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Madrilen etxe batean egon zen apopilo. Etxe hartako familiari buruz hitz egiten du. Gaztelaniaz ez zekienez, haiekin ere ezin zuen elkar ulertu, eta logelan ematen zuen denbora gehiena. Entrenamenduak non eta noiz izaten zituen azaltzen du.

17. Madrilera pilotan jokatzera (V): lan-baldintzak

- **Erref:** BRS-035/020
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:41:58. **Bukatu:** 00:43:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Madrilen zegoenean 600 pezetako soldata zuen; apopilo egoteagatik, ordea, 500 pezeta ordaintzen zituen. Esplotatu egin zutela sentitzen du.

18. Madrilera pilotan jokatzera (VI): nola lortu zuen etxera itzultzea

- **Erref:** BRS-035/021
- **Iraupena:** 0:06:24. **Hasi:** 00:43:50. **Bukatu:** 00:50:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

3 urteko kontratua zuen, baina hura bukatu baino lehenago etorri zen etxera, gaixotu egin baitzen. Etxera itzultzeko baimena nola lortu zuen kontatzen du. Etxera iristean, nagusiari idatzi zion esanez ez zela gehiago hara itzuliko eta zergatia azaltzen.

19. Madrildik baserrira eta baserritik fabrikara

- **Erref:** BRS-035/023
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:50:32. **Bukatu:** 00:52:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Baserrira » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>Madrildik etxera itzultitakoan, baserriko lanetan ibili zen. Geroago, Uranga paper-fabrika hasi zen lanean. Fabrika non zegoen azaltzen du.</p>

20. Fabrikako lanaren nondik norakoak

- **Erref:** BRS-035/024
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:52:44. **Bukatu:** 00:55:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Industria motak

Laburpena:

Paper-fabrika zer lan egiten zuen eta zer eratako paperak egiten zituzten aipatzen du. Papera dendarara saltzen zuten. Hiru urtez egin zuen lan fabrika, ezkondu zen arte.

21. Fabrikako kiratsa eta materialak

- **Erref:** BRS-035/025
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:55:15. **Bukatu:** 00:56:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

- Ekonomia eta industria » Industria motak

Laburpena:

Paper-fabrikan usain gogorra egoten zen. Kirats hura nondik zetorren azaltzen du. Pasta egiteko zer material erabiltzen zuten aipatzen du.

22. Fabrikako ordutegiak eta zereginak

- **Erref:** BRS-035/026
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:56:53. **Bukatu:** 00:58:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Industria motak

Laburpena:

Fabrikan langile askok egiten zuten lan; denak emakumeak ziren, eta nongoak ziren azaltzen du. Lanean zer ordutegi eta zeregin izaten zituzten aipatzen du.

23. Euskara semeei ez erakusteko erabakia

- **Erref:** BRS-035/027
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:58:50. **Bukatu:** 01:01:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Fabrikako soldata Madrilgoa baino askoz hobea zen. Madrilen oso gaizki pasa zuen euskara bakarrik jakitegatik; eta horregatik, bere semeei ez die erakutsi euskaraz hitz egiten.

Transkripzioa

-Madrilen irabazi zendun diruarekin ezta konparaziorik ere.

-Ez, ezta pentsatu ere. Nik ein nittun earrak. Esaten nun. Garbi esango dizut, garbi esango dizut! Bi seme dauzket, eta ez dakie euskeraz.

Gaztenak gehio daki zaharrak baiño. Baiño ez dakie, oin esango dizut, nik pasa nittunak han, hara joanda, euskeraz bakarrik, ez neukela erderaik, euskera bakarrik, ateeraik ez iñoako, ez dakizu erderaz, eta ez zeukazun ateeraik iñoako, parra itten zizuen gaiñea, eta ez diet erakutsi. Holaxe!, eta jende askoi esaten diot gaiñea. Holaxe, horregatixe baiña. Zergatiken nik han pasatu nittunak euskerakin....

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com